

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 4 milioiko laguntzak eman ditu mendialdeetako eta beste gune zail batzuetako nekazaritza-jarduerarako

*1.578 nekazari eta abeltzainek beren jardueraren gainkostua konpentsatzen duen laguntza hori jasoko dute*

Jueves, 03 de mayo de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak 4.017.667,88 euro eman dizkie 1,578 nekazari eta abeltzaini titulu printzipal modura, hau da, beren diru-sarreraren zati handiena nekazaritza-jardueratik lortzen dutenei eta *mendialdeko edo gune zail* hartzen diren eremuetan lan egiten dutenei

Laguntza horiek jasotzeko, titulu printzipaleko nekazariak ustiapena dagoen udalerrian bizi behar dira, laguntza jaso eta hurrengo bost urtetan jarduerari eutsi beharko diote eta beren errenta lanbide arteko gutxieneko soldata baino hiru aldiz txikiagoa izan beharko du.

Laguntza honen esparrua, [mendialde eta gune zailtarako konpentsaziozko kalte-ordainaren 2011ko deialdia](#) da. Norgehiagokako deialdia da eta aurrekontu-esleipenari lotuta dago, 4.020.000 euroko aurrekontua zuena. Laguntza emateko, [araudiak](#) baremo bat ezartzen du eta bertan nekazaritza gaztearen izaera lehenesten da, emakumearen izaera, lortutako puntuazio handiena ustiapen-koefizientearen arabera eta eskatzailearen adin txikiena.

Dagoen aurrekontuak eskaeren % 84ri aurre egitea ekarri du. Batez beste ordaindutako zenbatekoa 2.646 eurokoa izan da. Ustiapenen % 71k gizonezkoak ditu titular eta % 29k emakumezkoak. Laguntza jaso duen eskatzailearen batez besteko adina 48 urtekoa da.

### Nekazaritza-jarduera ingurumen eta kulturaren balio gisa

[Landa Garapenerako 2007-2013 Programan](#) aipatzen denez (laguntza hau horren barnean sartzen da), mendialdeetako nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen mehatxuak eta ahuleziak handitzen dituzten kontrako egoeren aurrean daude. Belaunaldi-aldaketa eskasiari dagokio bereziki eta ekoizpenen errentagarritasun txikiari, baldintza klimatiko eta orografiko txarreatatik eta ekoizpen-kostu handiagotatik.

Nolanahi ere, nekazaritza-ustiapen horiek egoteak balio garrantzitsua dakar bi arazoirengatik: ingurumenari egiten dion ekarpenagatik eta aldaera genetikoa nahiz kultur ondarea zaintzeagatik. Zehazki, abeltzaintza estentsiboak bertako arraza-kopuru onari eusten dio, eragin ona du larreen ekosisteman eta kutur ondare baliotsua babesten du.

Gune “zail” horiek eta “mendialdeak” [2002/05/15 Foru Aginduak](#) ezarri zituen; bertan 208 udalerrri daude eta foru-geografiaren ia % 80a.